



Aniztasun eta sexu identitate askearen aldeko adierazpena

Datorren ekainaren 28an, mundu osoko kaleak, Euskal Herrikoak ere bai, kolorez eta aldarrikapenez jantziko dira LGTBI kolektiboak hamarkadetan egindako borroka nabarmentzeko. 2016An, 47 urte beteko dira Stonewalleko (New York) matxinada izan zenetik. Egun hori askatasun sexualaren mugimenduaren ikur bihurtu da, erakunde politiko, polizial eta erlijiosoek lesbianen, gayen, bisexualen, trans eta intersexualen aurka ezarritako errepresioaren kontra egiteko mugarri izan baitzen.

Orduko mobilizazioek sexu askatasunaren aldeko antolakuntza bultzatu eta lanerako indarra eman bazuten ere, 47 urte geroago diskriminazio egoerak ez dira amaitu. Are gehiago, zenbait kasutan bestelako diskriminazio egoerekin batu dira eta baztertzeko egoera larrietan utzi ditu lesbiana, gay, bisexual, transexual, transgenero eta intersexualak. Kapitalismoak eragiten dituen diskriminazioei beraz, eredu matxista eta patriarkalaren bazterketak gehitu zaizkie, pertsona guztien, eta bereziki pertsona LGTBlen ongizatea kinka larrian jarritz.

Besteak beste, honelako kasuak bizi ditugu egun Euskal Herrian: etorkin ez heterosexuak; pobrezian bizi diren emakume lesbianak; beltzak eta transexualak direnak; familia nuklearrean oinarritutako bizi ereduarekin bat egiten ez duten pertsonak; generorik gabeko identitateak dituztenak; etab. Arrazoi ezberdinengatik dira diskriminatuak pertsona horiek: arrazoi sozioekonomikoengatik baita genero arrazoiengatik ere.

Izan ere, Hego Euskal Herrian, oraindik ere, homofobia, lesbofobia eta transfobiaren erasoak egunerokoak dira: kaleko eraso fisiko zein ahozkoak, Euskaltzaindiaren generoaren arabera izenen katalogazioa, familia eredu bakarraren inposizioa eskubideak bermatzeko, liburu eta eduki multimedia sexistak, etab.

Munduko egoerari so eginda, gero eta herrialde gehiago dira sexu askatasunaren aurka mota ezberdinetako legediak onartu dituztenak, hori giza eskubideen kontrakoa bada ere.

Horrexegatik, elkartasuna ardatz izango duen kontzientzia aldarrikatzen dugu, jarrerak aldarazi eta LGBTI kolektiboarekiko aurreiritziak, fobiak eta gorrotoak desagerraraziko dituen, alor guztietan ezinbestekoak diren lege eta gizarte aldaketak eginda: hezkuntzan, osasungintzan, hedabideetan edota herritar askatasunetan. Horretarako ezinbestekoa izango da ahalduntze politikak bultzatzea gizarteko sektore ezberdinetan.

Horrexegatik, politika instituzionalek pertsona lesbianen, gayen, transexualen, bisexualen eta intersexualen eskubide politiko, ideologiko eta zibil oro babesteko norabidean joan behar dute, oinarritzko askatasun printzipioaren baitan.

Era berean, kolektibo horien aurkako eraso, jazarpen edota errepresio orok gaitzetsi eta salatzen jarri behar du, eta horrelakoak errepika ez daitezkeen, bere eskura dituen baliabide guztiak erabili beharko litzuzke, prebentziorako, detekziorako, asistentziorako eta laguntzarako protokolo baten lanketa egiteko.

Hernanin laster dira San Joanak eta jai giroan ere sexualitatea modu askean adierazteko eta besteak errespetatzeko dei egiten dugu.

Udal honek duen jarrera irudikatzen duen ekainaren 21ean, 21:00etan, egingo dugun ekitaldian parte hartzera gonbidatzen ditugu herritar guztiak. Ispizua kalean, zehar bat margotuko dugu kolektibo horien aldarrikapenen ikur den ostadarren kolorez.

Hernaniko EH Bildu

Hernanin, 2016ko ekainaren 17an